

Beinkeren aldeko pelota erakustaldia Diman urtailaren 5ean

10. orrialdea

Sokatira Txapelketea Zeberion

Urtailaren 13an, 10:00etatik aurrera, Nazinoarteko Sokatira Txapelketea jokatuko da Zeberioko plazan. Badaiotz taldean, Ruth Linaza tiralari lemoztarra izango da eta Ibarra taldean Galder Gobantes Zeberiokoa. Gobantesek txapelketa honetako antolakuntza lanetan be hartzean dau parte. **10. orrialdea**



Atutxa Bizkaiko txapeldun azkoran eta Tubi Euskadikoa Lasto Altxatzen

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

309

2019ko urtailaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Arratiarra izeneko jakea egiten dau Amarenak enpreseak Donostian

Amamaren kaikua jaso eban Oihane Pardok familiako andren legadu moduan eta kalidade eta diseinuzko kaikuk egiteko sortu eban Amarenak.

Oihane Pardo arkitektoa da, eta Shangain beharrean egoala konturatu zan amamaren kaikuk Euskal Herriari buruz berba egiteko aukerea emoten eutsala eta erropeak istorio asko kontetan dituala. Euskal Herrira etorri eta kalidazeko kaiku modernoak egiteko Amarenak enpresea sortu eban 2016an.

Antxinako erropak ikertzen,

Arratiako gizonak janzen eban jakea dotoreagaz egin eban topo eta hau be egiten hasi zan.

Arratiarra moda desfile baten aurkeztu eban Miramar jauregian eta dokumental bat be egin dabe *Baserritik jauregira* izeneko.

Donostiako Tabakalera daukan tailerrera joan da BEGITU diseinatzaileagaz berba egiteko.

8. eta 9. orrialdeak



ARTEA

Kultura eta Lehen Sektorea lagunduko dauz Udalak 2019an

Igaz kulturarako diru partidea bikoztu egin eban Arteak eta aurrean be "de-zente igo dabela" dino Igor Etxaniz Arteko alkateak. Basoetan bertoko landaredia ipinteko diru laguntzak egongo dira. Eta inbersinoai jagokie-nean, Ekomuseoko teilatua barrizatzeko, Ustruku gunean jolasak ipinteko eta errokodromo bat egiteko diru partidak dagoz 2019ko Udal kontuetan.

Aurrekontuok abenduaren 19an onartu ziran, EH Bildu eta Aldatuz Herri Plataformaren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. **7. orrialdea**



IGORRE

Boulderra berregiteko diru partidea dago 2019ko Udal kontuetan

Beste inbersino batzuetarako, eskolako patioko lehenengo fasea eta Industrialdea barrizatzeko prozesurako, berbarako, be egongo da dirua. Herriarren Arreta Zerbitzua hobetuteko asmoz, udaletxeko harri-eran beste behargin bat kontratauko da, tramite batzuk bertan eta momentuan egin ahal izateko.

Guztira, 4.895.021 euroko aurrekontua onartu da Igorren aurtengo-rako. **5. orrialdea**



AREATZA

Merkatarien alkartea sortu da herriko komertzioa sustatzeko

Urtean zeharreko prozesu baten ondoren, abenduan sortu zan 12 komertzio osotutako Orburu merkataria Areatzan. Herri-tarrak alkartearen barri jakin dabe "mila euroko balioa daukan" Gabon otzarearen zozketeagaz.

Bere ibilbidea hasteko alkarteak akordio bat sinatu eban Udalgaz, eta Udalak 5.390 euroko diru laguntza emon eutsan 2018an, erosketak egiteko gurdia erosteko, gurdia honek babesteko etola egiteko, Gabon otzarearen balioa %70ean finantzietako eta etez etzeko zerbitzua %80ean diruz lagunduteko. 2019an be, Udalak diruz lagunduko dauz hainbat ekin-tza. **7. orrialdea**

Literatura txokoa

HADJI MURAT

XIX. mendean erdialdea, errusiaren inperioa Kaukasoko lurraldeak (Txetxenia, Txerkesia, Dagestan, Osetia...) bereganatzen zabil, baina bertako biztanleak behin eta berriro matxinatzen dira inbaditzaileak kanporatzeko. Matxinoen artean bat nabarmentzen da: Hadji Murat tartariarra, gudari ausarta eta gerrillari trebea. Halanda be, bere buruzagiak, Shamil Imamak, gorroto dau, bien arteko kontu zaharregaitik, eta familia preso hartzean deuto. Orduan, Hadji Murat errusiarretara pasauko da, honek bere familia askatzen lagunduko deusielakoan.

Lev Tolstoi benetako gertaeretan oinarritu zan bere azken eleberria izango zana idazteko; Kaukasora

bidalitako ofizial gazte bat zan Hadji Murat errusiarretara pasau zanean, eta hau berau personalki ezetu ez baeban be, liburuan agertzen diran beste pertsonajee-tako asko bai. Liburuari abentura eleberri klasikoaren usaina darion arren, hori baino gehiago, gizarte baten espilu da. Horretarako, Tolstoi-k, Hadji Muraten kontuan parte hartzean daben pertsonaje guztiak erretratetan dauz, zertzelada fin eta zehatzakaz, soldadu apale-netik Errusiako Tsar Inperialera, tartean, tartariar gudaria (hilik nahiz bizirik) trofeo moduan erabili gura daben ofizial eta diplomatiko guztietatik igarota. Digresinoak be erabilten dauz helburu honegatz; esate baterako, atal oso bat eskaintzen deuto hildako soldadu gizajo baten familia nekazariaren bizimodu xumea azaltzeari. Bai-

na horrek kontakizuna ahuldu beharrean, indartu egiten dau, holan, beste askoren artean bat gehiago zan soldadu xehe honen heriotzak, beste dimensio bat hartzean dau-eta, handik milaka kilometrorra, edurrez inguratutako etxola miserable baten, eragingo daben samin eta galera ulertzen dogunean.

Hau liburuau klasikoan dan arren, idazleak ikuspuntu modernoak erakusten dauz: gerra pasarteak erabat desmitifikatzaileak dira, esate baterako, ziurrenik, Tolstoi gaztetan Krimeako gerran ibilia zalako (Sebastopolen setioan), eta horrenbestez, errelato ofizialen loria arranditsuaren azpian osten-tzen dan miseria gordina ezagutzen ebalako; eta Kaukasoko herri kolonizatuak, basati legez agertu beharrean, bere sasoiko idazleak egiten eben moduan, honeen ikuspuntua erakusteko ahalegina egiten dau, kolonizazioaren justifikazioa bera (kolonizazioak


Lev Tolstoi

Itzultzailea: Josu Zabaleta

Hadji Murat

Meettok

226 orrialde



beti justifiketan dira herri basatiak zibilizatearen atxakiatan) ezbaian jarriz. Baina zer edo zerk egiten badau liburu hau gaur egungoa, hori zera da, gizabanakoa sistema politiko ustelduaren aurrean ipinteko modua. Azken batean, hori da-eta Hadji Murat-en tragedia-aren iturria, berau gizon prestu eta ausarta dan arren, erdipurdikoak diran gizonen interesen amaraunean harrapatuta dagoala.

Hau guztia, Tolstoi-k, modu sinple eta naturalenean kontetan dau, diskursorik egin barik, prosa argi eta gardenaz. Testuak esfortzu barik egindakoa dirudi, baina hori irudipen faltsua da; estilo araz hori lan gogorraren ondorio da. Liburu hau hamar bider idatzi eban oso-oso-oso, hasikeratik amaieraraino, bersino baxotxa aurrekoa baino depuratuagoa eginez, idaztearen artificioa guztiz ikusezin bihurtu arte. Holan forjau eta tenplazten dira klasikoak.

Ekaitz Zabala Iturbe

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abenduaren 31tik urtailaren 6ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 7tik 13ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 14tik 20ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Saraketa. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gometza Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioratza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Irati Urien.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Lupetz



Euria sano egin ostean asfaltu bako bideak eta basoko pistak lupetzez beterik paretan dira. Lurra uragaz nahastuta lur bustia edo lupetza egiten da (lupétza, ahoskatuta). Batuan, lokatz, basa edo lohi esaten da. Lupetz artean sartzean bagara, lupeztuta edo lohituta urtengo dogu. Lupetza, zikina bada be, berez ez da txarra; kasurako, lupetzezko bainuak onak ei dira osasunerako, hazurretako gatax tratetako batez be.

ERETXIA

Hator, hator...

Gabonak, urteko egun berezi honeek, familian pasetakoak ei dira, mahai baten inguruan danok alkartze-koak, sasoi bereziak... holangoetan familietan falta diranakaz akordetea ohitua da. Euskal Herriko hainbat eta hainbat etxetan aulki hutsak egon dira aurten be, baina nire hausnarketea ez da Gabonetako sentipen honen ondorioa bakarrik, badaroat denpora bat marmarka eta barruak astinduta preso batzuk Espainiako presan daukien trataera informatiboan eraginaz... guretzat zaharrak barri!

Badaukaguz, traje eta korbatadun politikari presoak Gürtelakoak, Marbellako pisu ederren jaubeak, patio pribadua daukan erregearen koinatua, Aguirrerren Madrileko gobernukoak edota gurera etorrita De Miguel auziko ustelak eta badaukaguz be gure anai-arreba katalanak! Baina "ozen esan gurako neuke": badagoz beste gatazka politiko bat oinarri izanda preso dagozan ehunka herritar be eta ez dakit ba ez ete diran gatazka baten hondarrak izango balira lez ahaztuak izaten.

Etxe ondoko kartzela baten egindako 20 egunetako gose grebaren inguruan asko idatzi da, meritua badaukie bai politikari katalanak, baina inkosziente gogora etorri jataz niri Bobby Sand eta IRAko beste 11 presoak, preso politiko izaera aitortzeko muturre-raino eroan ebenak euren gose greba, GRAPOko Crespo eta Sevillano edo Iñaki de Juana Chaos eta bere 63 greba egunak (ohera lotuta eta sonda batez elikatze-rahartuta, kode etiko guztiak apurtuz) eta zelan ez, isolamentu zeldatan, bakardadean, gose grebak egin dituen hainbat eta hainbat euskal preso. Edota euskal gizarteak egindako holango alkartasun ekintzak, Donostiako Buen Pastor eleiza testigu mutu... aitagaz izan naz holango batzuetan mediku eta ondo dakit gose greba batek, 7. egunetik aurrera dakarzan kalte fisiologikoak.



ITSASO BENGOETXEA
Medikua

Euskal presoenganako politika penitentziarioak mendekua kirtsa dauka, burrua armadua- ren urteak amaituta, denporan lar luzatu doana. Eta bortizkeria muturrera eroatea gaixorik dagozan presoen inguruan egindakoak dira. PPK aitatu barri dau Zaplanak etxean egon beharko leukela, hori be medioetan luze agertu da, kartzela ez dalako gaitz hori pairatzeko lekurik aproposena, behingoagaitik guztiz ados nago alderdi horrek esandakoagaz. Preso gaixoak eta batez be larri gaixorik dagozanak kartzelan mantendutea Giza Eskubideen urraketa eta tratu txarra emotea dala dinoe OMEk eta mundu mailako beste hainbat erakundek. Estatu espainoleko erreglamentu penitentziarioak gainera badauka egoera hori ekiditeko 104. artikulua baina ez dabe apliketan edo eta oso modu arbitrarioan apliketan dabe... (gogoratzen Galindo eta bere bihotz aritmia arinaz?). Ibon Iparragirrerren kasuagaz an-

tzekotasun klinikoak ditu Zaplanarenak, biak daukie defensasak baju izatera daroan gaixotsuna eta beraz kartzela infekzino iturri arriskutsu bat da eurentzat. Baina Iparragirrek urteetako burrukea jarraitu behar izan dau bere kasua argitara emoteko, bere pribautasunean jagon beharreko gaixotasuna publiko egitera behartuta eta hainbat trikimailu desbardin erabili ditue 104a ez apliketako. Kartzelatik atera dabe bai... lehenengo psikiatriko batera eta gero bere gaixotasuna daukien beste paziente batzuk artatzeko "baserri-erietxe" batera Gasteizera... Ondarrura ez eroatea da helburua antza...

Uribeetxebarriaren kasuak marra gorri bat zeharkatu ebalakoan nago estatu espainolarentzako... gaitz terminala eukan, kaleratu egin eben eta horren ostean, ikaragarriko segimentua izan eban bere atzen egunak zertan emoten ebazan jakiteko tertulianoen orduak betez, "larregi" irauten egoan hausnartuz... edozein muga etikoren gainetik. Bere bizia espero baino gehiago luzatu izanak estaduko makinaria makia-belikoa sutan jarri eban... handik dator hain zuzen, Zoido PPKo ministroak ateratako 3/2017 instrukzioa, eta instrukzio horrerri jarraituta Zaplanak ez dau etxean egoteko baldintzarik beteten: hara hor odolkiak ordainetan!

Historian zehar zibilizazio desbardinak aztertzeke orduan bere etsaiak izan daben jarkerea balorau da. Ez da beharrezkoa Egiptoko faraoiak edo Tamerlanek egiten ebenera jotea, ezta Ginebrako konbenzinoak dinoana aztertzea edo Lehen eta Bigarren Mundu mailako Gerrako preso kopuruak ezagutzea... Gure aititak amamakana hurreratzea baino ez daukagu, frankismoak eta guda irabazi izanak estatuaren izaeran errotu dauan legearen interpretazinarako harroa eta inpunidade arbitrarioagaz jaubetzeko. Espainiak etsaiak tratetako daukan eraz ohartuteke ez dogu Kataluniara begiratu behar izan, Altsasura baino. Guk ibiltzen aspaldi ikasia dogu otsoak eskutik heldu barik...

LUMATUTEN



URTZI BARRENETXEA

Desfilea

Independentziaren urteurrena dan lez, gaurkoan, euskal herritar guztion desfilea izango da. Danok ibiliko gara kalejiran. Ospakizuna gure uriburuan izango da... Zera... Bilboko Gran Vian. Ez, Iruñea historikoan edo... Lekua gitxienekoa dan lez, emon daigun Gasteizko Europa etorbidean izango dala.

Danok egingo dogu pasakallea, baina berezitasun batez: gure altueraren arabera izango da. Jan Pen ekonomilariaren ideari segiduta, esan daigun 10 euroko zentimetro bat izango dogula; halan, hilean 1.700 euro gordin jasoten dauzan horrek 1,70 metroko altuera estandarra izango dau.

Orduan ba, hasi da ikuskizuna. Musikea hasi da bai, baina ez da inor ikusten. Etxon. Ondo fijau ezker, lurrari pegautako euli tamainuko jentea dabil pasetan: soldata bakoak dira desfileari hasikerea emon deusienak.

Denporea pasau da euren ostean umean tamainukoak

azaldu arte; metrora ailegetan ez diran gazte eta zaharrak, RGS hartzaileak, kanpoan jaiotako batzuk eta bertan jaiotako asko.

Aurrera doa desfilea, txalo eta musika artean. Hasi gara ja metrotik gorako jentea ikusten. Eta oin datoz altuera arruntekoak 1,60-1,80m arteko andra-gizonak. Neurri estandarra dala esan geinke bai, baina ez dira hainbeste be normalizat hartuko geinkezanak.

Hareen txanda amaitu, eta laster itxi deutsee lekua saskibaloiko jokalaria emoten dabena. Gero eta andra gitxiago ikusten da.

Ez da denpora asko falta desfilea amaituteko, eta badatoz azkenengoetakoak. Hiru metrotik gorako kargu teknikoan txanda da: gitxi horreek pausu handitan eta arin desfilau dabe. Ostean datoz, saltoka eta praka laburretan, kirolari profesionalak, bost metrotik gorakoak asko.

Desfilea amaitzean dala, lurra dardaraka hasi da. Ikusleok, eskuak bekokira eroanda eguzkitik babestuteko, korbatadun gizon gitxi batzuk ikusi doguz, burua laino artean daukiela. Negoziogizon honeek dozena bat metro bai. Ostean, bankuko delegaduak. Eta azkena. Handiena. Nor da? Ezin esan, bere burua troposferatik harago dago eta.

Munstro horreen aurrean, ume txikiak negarrez hasi dira ikaratuta. Gurasoak, oster, atzamarrakaz seinaletan ditue erraldoiok. Seme-alabai esaten deutsee altuera horreetara heldu daitekezala bizitzan gogor saiatu ezker. Txupetea kendu dau neskato batek: "aite, nagusitan ez dot Gargantua izin gure".

ZERTZEAN



IBON IZA

Zer dogu zenbaki bat zer dogu oreka?

Dana zenbakietan behar da uneka batzuk hutsik etxera besteak beteta non jarri gaur begia non jarri arreta? Ona bezain txarra da beti txapelketa.

Etxahun fenomeno bat zu zara aukeran iturri horretatik gura neunke eran bakarrean hain ondo euskeraz primeran maite zaitut oholtzan plazan eta juergan zugaz ikasi dot nik bizkaiera zer dan!!

Xabat bertsotan dozu hainbat kategori kostaldeko indarra, etxeko harrobi su apur bat emonda suhiltzaile askori Xa batean ei dagoz Xabat ta gero bi!! Zaindu eizu bihotzez maite dozun hori!!

Sarritan egin nauen zurea, nirea zu zara sumendiak dakarren airea materiagaz burrukan dan eskultorea artistak daukuzuen genialidadea zenbat emon deuskuzun zuretik Nerea.

Neska gazteak dauka gerra ta burruka hamalau bat urtegea lokalean sartuta lanparari begira egoan sututa eskerrik asko Miren, eskutik hartuta zer dan plazerra zeugaz ikisi dogu ta.

Zelan ibiltzen zaren errimen errekan harantza sigi-saga gero etorri bueltan txatalak josten dozuz olgetan, olgetan zelan zara kapazai, Jone benetan? Zenbakiak jartzeko emozinoetan.

Gaia jarrita: "Bizkaiko Bertsolari Txapelketa"

Abadiñoko arbolak badauka abarra gau ilunean ere zeruko izarra metaforen zaindari langile azkarra lagunak aukeratzan zu zara bakarria bizkar-hezur sendoa daukazu Bizkarra.

Nerabea ta umea bardin-bardin zara pastela botatzeko zer kristo behar da ba!! Munduak eskertzen dau zure begirada Abarkas maite zaitut hori egia da!! Infernuko atean alkartuko gara.

Nerea, Jone, Onintza eta bardin Miren kristalezko sabaia apurtzeko ziren kantuan zuzen eta erantzuten finen gutzat Onintza beti hemen zein Madrilan zu txapel barik ere txapelduna zinen.

BEGI TXINDORRA

Gixitan gertatzen da eliteko kirolariak gurera etortea. Munduko txapeldunak gure herrietan gatxago. Bizitzaren kasualidade handi batek ahalbidetu eban Anatoli Karpov, bi aldiz munduko txapeldun, lehenengoan hamar urtez, bigarrenetan sei urtez, Areatzara etortea afalduten. 160 txapelketa irabazita, Leninen ordenaren jaube... zalantza barik XX. mendeko kondaira bizia. Hurrengo egunean BECen ume eta gaztetxoak egoan ekitaldi batera joan behar zala eta, Areatza Xake Bizi Alkartekook aukera izan genduan herrira konbidau eta beragaz tarte batez egoteko. Lagun ekarri eban Leontxo Garcia irundarra be, ziurrenik Euskal Herri osoko pedagogo eta xake dibulgatzaile handiena. Harrigarriena baina, bere jakinmina herria, antolakuntza eta historiari buruzkoa izan zala. Izan be, egun xakean badarrai be, arlo soziala ugari jorratzen dau Karpovek. UNICEFen enbajadore eta Errusiako Duman diputadu da Alderdi Komunistako kide gisa. Eta alde hori gailendu jakon Areatzako dozena herritar hurbildu jakozan-eta argazkia aterateko beragaz.

Iban Gortazar



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zentzua 100
R.P.S. 21/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

IGORRE

Boulderra egin eta eskolako patioaren lanen lehenengo fasea egitea aurreikusten da 2019rako

Abenduaren 17an onartu ebazan 2019ko aurrekontuak Igorreko Udalak, EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren abstentzinoagaz. Herritarren preminai erantzun ahal izateko Udalak 4.895.021 euro kudeatuko ditu aurten.

Erredakzinoa

2018ko aurrekontuak igoera handia izan eben eta aurten mantentzen egin da diru kopurua. Diru sarrerak txikiagoak izango dira, eta aurrekontua mantentzeko, urtero jasoten dabezan diru laguntza batzuk, normalean ez dabezanak aurrekontuetan sartzean, aurten sartu dituela azaldu deutso BEGITURI Beinat Anzola Igorreko alkateak.

Harrerea egiteko behargin bat gehiago

2019an, udaletxeko harreraren beste administrari bat hartuko dabela dino alkateak. Izan be, Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ) martxan ipini gura dabe, herritarrei zerbitzu hobea eta arinagoa emoteko. Holan, zerbitzu batzuk, harreraren bertan emon ahal izango dira eta herritarrek ez dabe etxon behar izango.

Udaleko behargin batek be



Eskolako patioaren infografia.

erretiroa hartuko dau eta udal beharginen soldatetan, Montorok aurreikusitako %2ko igoerari aurre egiteko dirua gorde dabe aurrekontuetan.

Boulderra, eskolako patioa eta Industrialdea

Ikastetxea egokitu eta hornitzeko lanak egiteko 102.000 euro dagoz. Patioa barritzuteko proiektua, alkarregaz landu dabe eskoleak eta udalak eta obra handia danez, lau zatitan egingo da. "Horreetako bategaz hasiko gara eta printzipioz uste dogu urtero bat egitea posi-

ble izango dala" dino Anzolak.

Kirol instalazioak egokitu eta hornidutako 106.000 euro ipiniko dira. Batez be, kiroldegiko aldageletan konponketak eta boulderra egiteko da diru hori. Boulderrak, 2018ko aurrekontuetatik 60.000 euro hartu ebazan eta 2019koetatik 31.000 euro. Osoko Bilkuratik pasau eben urte biko aurrekontuetan ipini ahal izateko. Erre zan lekuan bertan egin-gin dabe boulder barria.

Ikerketak, azterketak eta proiektuak egiteko beste 18.000 euro dagoz. Horreen artean, Industrialdea barritzutekoa. "Proiektua

preparatuko enpresa batzuetako arduradun eta ordezkariak lau batzar egin doguz" dino alkateak. Errotak be lagunduten dau proiektu honetan, hitzarmen baten bidez eta, Foru Aldundiak eta Eusko Jaur-laritzak Industrialdeak barritzuteko diru laguntzak emoten dabez. Horregaitik, Igorreko Industrialdeako enpresen artean alkartea sortu dabe eta diru laguntzak eskuratzeko, lehenengo araberako dokumentu bat egin behar dabe. Horretan lagundutako da diru partida hori.

Beste batzuen artean, jubila-duen txokorako, Kultur Etxerako, fatxadak konpondutako, eta gazteen aisialdi lokaletarako be egon-gin da dirua.

Diru laguntzak aurrekontuan

Foru Aldundiko Udalkutxako diru kopurua aurreko urtekoa baino ia 200.000 euro handiagoa izango da. Boulderra egiteko aseguru-tik 98.400 euro jasoko ditue eta aurrekontuetan sartuta dagoz. Eta aurten, jasoko dabezan hainbat diru laguntza, Ur Partzuergoaren 20.000 euroak, esaterako, be sar-tu ditue kontuetan.

Eskoletarako inbersinoak egitea-rran 26.000 eurotako diru sarrerak aurreikusten dira 2019an.

DIMA

Frontoia gainezka egon zan Guk be ein geinke, Beinke! ekitaldian

Erredakzinoa

Abenduaren 29an, Gure Señeak eta Karenka alkarteentzako dirua batzeako Beinke! ekitaldian, "zortzirehun edo bederatzirehun" persona inguru batu zirala dino Ibon Iza antolakuntzakoak. Zehatz jakiterik ez dagoan arren, Dimako frontoia gainezka egon zan.

Areatza, Dima, Zeanuri herri kirol desafia, kantuak, jantzak eta

bertsoak egon ziran. Eta amaituteko herri afaria. Herri kirol desafia Zeanurik irabazi eban, baina parte hartutea izan zala garrantzitsuena dino antolatzaileak.

Jaia antolatutako jente askoren inplikazioa eta laguntza behar izan ziran. Dima, Areatza, Igorre eta Zeanuriko herritar edo-eta Udalak jaia aurrera aterateko lana egin eben. "Afarria eta harrikoa egin ebenak, oholtzan egon zira-

nak... danak eskertu gura doguz, hainbeste lan debalde egiteagaitik" dino Izak.

Publikoaren erantzuna be ona izan zan, frontoia bete eban eta. Jasotako diruak, gaixorik dagozan edo desgaitasuna daukien hainbat umeren bizimodua hobetutako balioko dau.

Alkarteen esker ona

Dirua erdibana egingo dabe Derrio Gure Señeak eta Ondarruko Karenka alkarteak.

Karenka alkarrekoen guraso taldearen berbetan "jai zoragarria izan zan" eta eskerrak emon eutsezan antolatzailei "musutruk holango jai handi eta ederra antolatu eta geugaz akordetearren".



Beinke! ekitaldiko argazkiak.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan



ARRATIA

Flamenkoa andren arteko konplizidaderako erreminta moduan erabiliko dabe

Erredakzioa

Urtailaren 17, 24 eta 31n, eta zezeilaren 7 eta 14an, Monica Nuñezek *Me pones flamenca* ikastaroa emongo dau Lemoan, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen programazino barruan. Eskolak, Jubiladuen tabernaren gaineko aretoan izango dira eta saioak 18:00etatik 20:00etara izango dira. Izena urtailaren 10era arte emon daiteke Arratiako Udalen Mankomunitatean edo udaletxeetan.

Tailerrean, partaideak, umorearen bitartez, beste persona batzuek hartu-emonetan ipinteko modu barriak ezetuko ditue. Nork bere buruarengan daukan konfiantza eta segurtasuna indartuko dabe, baita bat-batekotasuna, ausardia eta beste andrakaz konplizidadea be.

Monica Nuñez

Monica Nuñez Madrilen jaiotako flamenko kantaria, Pedagogia

ikasketak egin ostean, Musikaterrapia masterra egin eban. Gizartekintzan eta kultura animazioan egin dau behar. Kantaria, aktorea, sortzailea... bere lanik ezagunena, *La Flamencura todo lo-cura* da, flamenko eta umorezko ikuskizun eta formazino proiektua. Sormena landuteko eta partaidetza bultzatzeko ikastaroak emoten ditu andren jabekuntza eskolatan. Horreetako bat da Lemoan emongo dauan *Me pones flamenca* tailerra.



Monica Nuñez.

ARRATIA

Enpresa Foroa urtailaren 18an batuko da

Erredakzioa

Errota Fundazioak bultzatutako Arratiako enpresen foroak, Lekun Cauchu/Urakort, ur-zorrotadaz ebagiteko ingeniariak enpresan izango dau hurrengo saioa, hilaren 18an, goizeko 09:30etik 12:00etara. Enpresa foroko saioak, parte hartuten daben enpresetan egiten dira, beste lantegiak

ezetutako aukerea izateko.

Egitaraua zati bitan bananduta dago. Lehenengotik enpresea ezetuko dabe eta bertatik ibilbide bat egingo dabe garatuten dituen prozesuak ikusteko. Bigarren zatian barriz, talde lana egingo dabe eskualdeko enpresetan prestakuntzeagaz lotutako beharizanen gainean hausnartzeko. Errota Fundazioko Iratxe Goikoetxearen arabera, "honen helburua, Arratiako enpresetan eskatzen diran prestakuntza eskakizunak jakitea da, honek bideratzeko asmoz".

Saio honetan parte hartzeako, enpresak urtailaren 14a baino lehenago emon behar dabe izena info@errota.eus helbidean.

AREATZA

AreatzAPP aplikazioa eskuragai dago

Erredakzioa

Areatzako Udak aplikazio bat sortu dau heritarren eskura ipinteko; debaldekoa da eta euskeraz zein gaztelaniaz instalatu daiteke, baina telefonoak ezarrita daukan hizkuntza hartuko dau instalatzerakoan.

Aplikazio honeri esker, herritarrak Udak emondako infor-

mazioa zein abisuak jaso ahalko ditue telefonoetan, ur edo argi mozketak, albisteak, abisuak, eta abar. Herritarrak udalari mezuren bat heldu arazo gura izan ezker be, horretarako aukerea izango dabe; aurrekontuetarako aintzat hartzeako mezuak, ideak, edo zeozer apurtu bada horren barri emoteko, berbarako. "Aplikazioan hainbat aukera eskaintzen dira, mezuaren edukia zehaztu ahal da; hau da, zeri buruzkoa dan: uri altzariak, argizterria, aurrekontuak... eta mezu idatziaz gainera, bestelako artxiboak be gehitu ahal dira: bideoak, geokokapena, argazkiak, eta



abar" azaldu deutso BEGITURI Maitane Diez zinegotziak.

Holan, Udak zuzenean jasoko dau horren barri eta konpontzeko bada, lehenbailehen ekingo deusala hori egiteari, bere ardurea bada behintzat, dinoe Udaletik.

ARRATIA

Gabonetako kultura eta aisialdi jarduerak ugari urteko lehenengo egunetan

Erredakzioa

Gabonetako programa batzuk ez dira amaituten urteagaz batera eta horregaitik, udalak eta alkarteak antolatuta, kultura eta aisialdirako jarduerak ugari daukaguz aukeran Arratian. Jentetsuenak, Areatza, Bedia eta Igorreko Erregetako Kabalgatak izango dira. Kontzertuak jagokienean, aitatu behar da Areatzan izango dan gospel kontzertua; izan be, Arratian gitxitan izaten da musika mota hau entzuteko aukerea. Lemoako Gaztetxeo Stankeik Band taldearen urteroko kontzertua edo Areatzako Bandaren kontzertuak osotuko dabe musika eskaintzea. Gabonetako Umeen Parkeak oindino be zabalduko dabez ateak urteko lehenengo astean.

Areatza

Urtailak 3, eguna

20:00etan, Ramon Escalék zuzendutako Arteta Gospel Choir taldearen gospel kontzertua eleizan.

Urtailak 5, zapatua

18:00etan, Erregetako kabal-

gatea. Karpon hasita eguraldi ona egin ezker, ostean plazan.

Bedia

Urtailak 2, eguztena

17:00etan, *Richard zikoina* filma ludotekan.

Urtailak 3, eguna

10:00etatik 19:00etara, urtekeria GUPera. Bazkaria eta merienda eroan behar dira.

Urtailak 5, zapatua

18:30ean, Erregetako kabalgatea. Aurretik txokolatea bananduko da.

Igorre

Urtailak 3, eguna

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea. Motxogaren tailerrak aterpean.

19:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua Lasarte Aretoan.

Urtailak 4, barikua

16:30ean eta 18:30ean, *Pinotxo* umeentzako antzezlan (saio bi) Lasarte Aretoan.

Urtailak 5, zapatua

18:30ean, Erregetako kabalgatea Mandoia kaletik hasita.

Lemoa

Urtailak 2, eguztena

19:00etan, errefujiaduen harrera esperientzien trukaketea. Lemoa harrera herria izateko eta Karabie Gaztetxea harrera gune bihurtzeko egin daitekenaren gaineko eztabaidea. Artea, Arri-goriaga, Usansolo, Zierbena, Karmela eta Harrobi Fundazioak hurreratuko dira norbanako eta esperientzia kolektiboak kontetan. Karabie Gaztetxean.

Urtailak 3, eguna

20:00etan, Pintxo Lehiaketea Gaztetxean.

Urtailak 4, barikua

20:00etan, *Koktail* tailerra Gaztetxean.

Urtailak 5, zapatua

23:00etatik aurrera, Stankeik taldearen kontzertua Gaztetxean.

Zeanuri

Urtailak 2, eguztena

19:00etan, esku pelotearen gaineko mahai-ingurua Kultur Etxean. Abel Barriola, Karmelo Ariznabarreta, Oier Etxebarria, Iñaki Gorostiza, Danel Elezkano eta Joserra Garai.

Urtailak 3, eguna

Ume eta gurasoentzako Donostiara eta Pasaiara egun guztiko urtekerea. Albaola eta Aquariumera bisita.

Olaxte
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentilen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

Zugaitik BEGITUTen dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA
• Psikologia
• Logopedia
• Fisioterapia
• Ulermen tailerra
• Jarrera arazoak
• Emozioen tailerra
• Psikomotrizitatea
• Adimen emozionala
• Trebetasun sozialak
• Estimulazio goiztiarra
• Eta askoz gehiago...
652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

Kili~Kili
Antzoki eta Kulturuzko
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 63 81

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Elexalde, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 - 506 554 018

izkaifisios
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elexalde, 4
48140 Igorre
94 631 55 08
igorre@izkaifisios.com
ANDRA MARI KLINIKEA
Fontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@izkaifisios.com

AREATZA

Merkatari alkartea sortu da Areatzan herriko merkataritza bultzatzeko

Urtean zeharreko prozesu baten ondoren, abenduan sortu zan 12 komertzio osotutako Orburu merkataritza alkartea Areatzan.

Erredakzioa

Ibilbidea hasteko hitzarmena sinatu dau Udalgaz. Izan be, "bertoko saltokiak ezinbestekoak dira herria bizirik egoteko eta herriko garapen ekonomikoa bultzatzeko, eta ekimen horretan lan egin gura dau Udalak" dinoe Udal iturriak Areatza Lantzen aldizkarian.

2018ko abenduan sinatutako akordioak lau finantziaketa oinarri daukaz. "Erosketak egiteko gurdiak erostea, gurdi honeek babesteko etxola egitea, Gabon otzararen balioa %70ean finantziatzea eta etxez etxeko zerbitzua %80ean diruz laguntzea. Horrez gainera persona baten lana kontratatu da plazan, erosketak egiteko gorde diran kotxeentzako aparkalekuen kontrola erosteko. Guztira, 2018an, 5390 euro" azaldu deutso BEGITURI Asier Garcia Areatzako alkateak. 2019an be, hiru hilabetez behintzat, diruz lagunduko dau Udalak etxez etxe-

ko zerbitzua eta "beste ekintza bat edo bi be diruz lagunduteko diru partidea itxi da".

Gabonetako otzarea

Orburu merkataritza alkartea ezetutera emoteko egin dauan lehenengo ekintza, "mila euroko balioa" daukan Gabon otzarearen zozketea izan da. Alkartean mota desbardinatutako saltokiak batzean dira eta otzara botikan egon zan ikusgai. Zerbaki sariduna, 3.256 izan zan. Vicent Zaragoza eta Patricia Miñanari tokau jakien otzarea.



ARTEA

Basoan bertoko landaredia ipinten dabena diru laguntza emongo deutse Udalak

Erredakzioa

Abenduaren 19an onartu ziran Artean 2019ko aurrekontuak, EH Bildu eta Aldatuz Herri Plataformaren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Kontuon arabera, Udalak aurten 1.076.705 euro kudeatu beharko ditu, igaz baino 55.000 gehiago, hain zuzen.

2019ko udal kontuetan, opoaketa bidezko administari lanpostu bat sortzeako dirua ipini dala dino Igor Etxaniz Arteako alkateak, "udan, kale garbiketan eta herriko mantenimendu ordezkapenak egiteko be dirua ipini dogu. Kanposantuan obra batzuk egin doguz eta, herriak halan eskatuta, mantenimendu hobea egiteko 10.000 euro ipiniko dira (igaz 2.000 izan ziran)". Ordezko arauen aldaketarako 38.000 euro dagoz, Plan Orokorragaz hasteko.

Arteako mapa topografikoa egiteko diru laguntza jaso dabela eta hori egiteko asmoa daukiela dino alkateak. Bertan, auzuneak, bideak, saltokiak eta turismorako inportanteak diran gauzak agertuko dira.

Lehenengo sektoreari laguntzak

Aurrekontuetan 25.000 euroko diru partidea dago basogintzarako. Izan be, euren lurretan bertoko landaredia ipinten dabena diru laguntza bat emongo deutse Uda-

lak "hektareko bostehun edo mila euro, zehaztu barik dago oindino. Beti be tope bateraino".

Arteako nekazari eta ekozleai be, Gorbeialdek ez deustela nahikoa lagunduten eretxita, Udalak zuzeneko laguntzak emongo deutsez. "Diru laguntzak eta beste motatako laguntzak. Udalaren babes osoa eukiko dabe".

Ekomuseoko teilatua eta errokodromoa

Inbersinoai jagokienean, lehenengo Ekomuseoan edo Ustruku gunean, umeentzako tirolina bat eta jolas batzuk ipiniko ditue eta horretarako 20.000 euro dagoz; aurrezpen energetiko helburuagaz Ekomuseoko teilatua aldatuteko 45.000 euro.

"Hainbat herritarrek, eskolak eta guraso alkateak eskatuta, errokodromo bat be egingo dogu" dino alkateak. Errokodromoa egiteko

14.000 euro dagoz.

Korrikarako be 3.000 euro egongo dira.

EAJ-PNVk beste lehentasun batzuk

Alberto Intxaurrega EAJ-PNVko zinegotziaren arabera, kontrako botoa emotearen errazoiak desadostasunak baino gehiago, lehentasun kontuak dira. "Guretzat lehentasunak dira Ekomuseoa eta auzuneetan hobekuntzak egitea". Izan be, jeltzaleen ustez Ekomuseoa barriztu egin beharko litzateke. Gorbeialderi emoten jakon diru laguntza be ez litzateke murriztu behar.

Gainera, auzoai jagokienean, besteak beste, Ugarteko eta Biddosolako autobus geltokiak egokitzeko, zuntz optikoa udalerri osoan zabalduteko eta umeen jolasak ea leku egokian dagozan aztertu eta barriztuteko diru partidak behar dirala dinoe EAJ-PNVkoak.



Artea.

Argazkia: Oriol Fernandez

2019

"Begi bizian, begi luzean, begirada sakonean, begirada osoan begituten beti" Gontzal Mendibil

begitu
errotu urte berrira

Urte barri on!

ARRATIARRA



Oihane Pardoren Amarenak enpreseak "arratiarra" jakea egiten dau Donostian

Donostiako Tabakalera dauka egoitza Amarenak enpreseak. Han Oihane Pardok, tradizioak inspiratuko beste erropa modernoan artean, diseinuzko kaikuak eta "arratiarra" izeneko jakea egiten ditu. Izan be, Eulalia Abaituaren argazkietan agertzen zan Arratiako gizonaren txamarrotea, ezkontza eta beste okasino berezietarako jake dotorea bihurtu dau Pardok.

Oihane Pardo arkitektoa da eta Shangai-n beharrean egoala euki eban Amarenak enpresea sortzeako idea. Shangai itxi eta Donostiara etorri zan eta 2016ko urri lehenengoan jaio zan Amarenak. Izena, amamak eta amak itxitako legaduari egiten deutso erreferentzia. Amamaren kaiku estimadu bat dagoalako istorio honen hasikeran.

Erredakzioa

Zer dala-eta sortu zenduan Amarenak?

Ni arkitektoa naz eta kanpoan bizi izan naz denpora luzean, leku askotan. Atzen lekua Shangai izan zan, arkitekto lanak egiten nebazan han. Familia Iruñekoa da. Txikitan behin kaletik ninoiala ikusi neban kaiku bat jantzita eukan bat. Orduan amari galdetu neutsan, "ama, zer da hori?" Eta esan eustan, "kaikua da, antxinako jakea, etxean badaukagu bat, amamare-

na". Eta handik aurrera, amamaren kaikua erabiltzen hasi nintzan beste edozein jake lez. Eta beste lekutara joan nintzanean, Bartzelonara, Bruselara edo Txinara eroan neban amamaren jakea kuttuna.

Baina heldu zan momentu bat amamaren jakea sano zahartuta egoala eta gura izan neban beste barri bat erosi. Eta konturatu nintzan kaikuak -edo lekeitiarrak hemen esaten deusaguzan moduan- moztu bihurtu zirala. Ez eukien amamarenak eukan kalidazeko oihala, diseinua askoz

zatarragoa zan, andrazkoenak zaku modukoak ziran... Orduan ebatzi neban amamaren kaikua kopiatzea. Horregaitik ipini neutsan enpreseari Amarenak izena.

Orduan amamaren kaikua kopiatu neban eta beste kolore batzuetan be egitea ebatzi neban. Hasikeran niretzat bakarrik. Sasoi haretan Shangain bizi nintzan eta mundu osoko lagunak neukazan. Konturatu nintzan danai atezino emoten eutsela eta kaikua eroateak Euskal Herriaren eta gure historiaren gainean berba egiteko

aukerea emoten eustala. Apurka-apurka ikusi neban jantziak edo modak historia eta kulturearen zati bat kontetako gaitasuna daukiela. Jentea eskatzen hasi zan eta etxera bueltetea eta Amarenak sortzea ebatzi neban.

Zelango harrerea euki eban proiektuak?

Oso harrera ona euki eban egitasmoak, nire moduan baegoalako jente asko kalidate oneko eta diseinuzko kaikuen bila. Eta pentsatu neban ezin nintzala horretan bakarrik geratu, gauza gehiago bilatu

behar nebazala, barriztu eta hareen gainean berba egiten hasteko.

Eta holan aurkitu neban arratiarra.

Zenbateko produzino dauka?

Nik diseinua eta prototipoak egiten dodaz eta produzino, Gipuzkoako beste lau tailerretan egiten da, azpikontrata moduko baten. Tailerrak, Donostian, Andoainen, Zumaian eta Irunen dagoz. Ekitaldiak antolatzeke, argazkiak aterateke eta komunikaziorako be, beste jente baten kolaborazino daukat.

Produzino txikia da. Hiru linea dagoz. Bata da, jantzi estandarrek deitzean doguzanak: diseinua, egin eta hor dagoz. Kolezino mugatua izaten da. Modelo baten 15 ale edo egiten doguz, numeratua egiten dira. Agortzen diranean ikusten dogu ea ateraten dogun bigarren edizino ala ez. Esaterako, horreek udakoak 30 egin doguz bakotzeko.

Beste asko, eta hori da bigarren linea, enkarguz egiten doguz. Ba-



Arratiako gizona arratiarra jakeagaz.



ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net




www.alkizabal.net









ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

ten bat etorten da tailerrera eta aukeratzeko zer gura dauan, zein koloretan... Personalizaua.

Hirugarren linea da gauza bera baina talde handientzat. Uniformeak, esaterako.

Atzenean nik egiten dodana zera da: ikertu, bilatu zeozer nire ustez interesgarria dana eta atzean istorio polit bat daukana, eta diseinuaren bitartez horri bizi barri bat emon.

Arratiarra zelan sortu zan?

Kaikuak egiten hasi nintzanean, ikerlari, historialari eta museoakaz hartu-emonetan ipinten hasi nintzan. Orduan ezetu neban Bilboko Euskal Museoko jentea eta bisitan joaten nintzan lantzean behin ikusteko zer eukien biltegian, argitaratutako liburuak, eta abar. Ez nekian zer topauko neban eta bat-batean ikusi neban arratiarra. Ez neban jaka hori ezagutzen baina oso polita iruditu jatan.

Orduan Amaia Mujikagaz egin neban berba. Bera da Museoko Etnografi Teknikaria eta kontau eustan jantziaren jatorria. Arratia da Euskadi mailan tradiziozko jantziak gehiago irauten daben puntu horreetako bat. Jakea arratiarrak izena dauka holango azkenak bertan topau ziralako, baina ezin da jakin beste lekuetan be erabilten ete ziran ala ez.

Arratiako gizonak erabilten eben ezkontzeko. Orduko sasoian jantziak andrak egiten ebezan linoagaz baserrian eta ardi-ule oihaleko jakea berezia zan. Ezkontza zan euren bizitzaren egunik garrantzitsuenetakoa eta ezkontzarako, beren-beregi egiten eben jakea. Gero handik aurrera, bizitza osoan, ekitaldi berezietan erabiliko eben jakea eta askotan hiltean arratiarra jantzen eutseen edo beste kasu batzuetan belaunaldiz belaunaldi heredetari joaten ziran.

Jakea sano polita iruditu jatan, eta bere historia be bai. Persona batek bere bizian izango eban jakirik onena zan. Ez zan normala eukitea ardi-ulezko erropea eta eukiten eben bakarra izaten zan, jokin batek egindakoa gainera. Sano berezia. Gizonezkoena zan. Baina nik pentsau neban "gizonezkoak ez dakit baina nik uste dot andrak ondo hartuko dabela".

Eta holan hasi nintzan jaka arratiarri neurriak hartzean, jantzia ikertzen eta ikusten zelan egokitu andren gorputzera.

Zeintzuk dira arratiarra eta beste kaikuen arteko antzekotasunak eta desbardintasunak.

Oihal bardina daukie kaikuak eta arratiarra jakak, ardi-ulezkoa. Fieltra, ardi-ulea konpaktua da, hau ehunduta dago. Txapelaren oihal bardina. Lepoa be bardina daukie, biribila, baina hortik aurrera, beste guztia desbardina da.

Jaka arratiarrak kanpai itxurako forma dauka. Forma apur bat murritu baina mantentzen egin dot. Gero daukaz apaingarri batzuk errepresentetan dabenak sortu barri dan garoa, forma nahiko begetalak; hau da, mundu begetalean topau daiegeuzan formak.

Nik egin dodana izan da forma horreek hartu, bermarraztu estetikago egiteko, eta egokitu.

Jantzi honek irauteko egiten ziran eta ez eukien boltsikorik, boltsikoak faltsuak ziran. Sasoi hartan gerrikoa eroaten eben eta dana sartzean eben han. Nik boltsikoak egin dodaz.

Beste aldaketa batzuk be egin doguz. Apaingarria ez zan honen modukoa, simpleagoa zan eta beti izaten zan baltza. Oihala baltza eta apaingarria be baltza. Guk be egiten dogu baltza eta baltza, baina baita urdina eta gorria, grisa eta urdina... kolore desbardinetan.

Ze bezero motak erosten dau jaka hau?

Arratiarrak ez dau izan kaikuak besteko arrakastarik, ze azkenean kaikuak daukana da mundu guztiak ezetuten dauala, euskal imaginarioan dago, baina arratiarra ez. Eta prezioa be garestiagoa da, ze kaikuak baino lan gehiago dauka. Momentu berezietako jakea da: ezkontzetarako, Gabonetako afari dotoretarako eta abar. Badaukaguz bezeroak, andrazkoak, ezkondu diranak arratiarragaz. Ondo funtzionetan dau.

Moda desfileetan egongo da orduan.

Bai, arratiarra desfile baten aurkeztu genduan. 2017ko zinemian izan zan, Miramar jauregian, *Baserrik jauregira* izenpean. Moda iraunkorreko desfilea zan.

Dokumental bat be egin dogu arratiarra aurkezteko eta hor be ikusten da desfilea.



Kaikuak eta arratiarra.

Zerionak eta urte barri on!

ARRATIAKO VDALEN MANKOMUNITATEA

Elxalde Kalea, 49 / 48140 IGORRE / Tfnoa. 94 631 17 17
mankomunitatea.arratia@bizkaia.org / www.arratia.eus

PELOTEA



	URTARRILAK 5, ZAPATUE		16:00etatik AURRERA
1.	URKO SUGOI	//	AGER OHER
2.	AUR AGER	//	EÑAUT TELMO
3.	HAITZ IGOTZ	//	GOTZON (Zeanuri) AMETS (Zeanuri)
4.	EKI O. ANER G. (Zornotza)	//	UNAR (Markina) IKER (Markina)
5.	ETXAHUN IGOR (Zeanuri)	//	AIMAR IKER
6.	MALÉN ARRENE	JARE ARGA	ENARA MADDI
7.	UPHER EK	//	TXOMIN HAIMAR
8.	XABI R.	//	OLAZOLA (Orozko)
9.	AMAIA ALDAY ANHOA ROMERO (Lemoa)	//	ARAIZ IZAGIRRE (Zestoa) OHANA ORBEGOZO (Azpeiti)
10.	ION ARANA (Abadiño) SUR	//	KIMETZ MARKEL

Hamar partiduz osotutako pelota erakustaldia egingo dau Txumuluxuetak

Erredakzioa

Pelota eskoleak hainbat esparrutan gora egin dauala ospatuteko, hamar partiduz osotutako pelota erakustaldia antolatu dau Dimako Txumuluxueta Pelota Klubak urtailaren 5erako. Jai honek hiru helburu ditu: herritarrek konpartidu gorakada hori, eskolako pelotariak protagonismoa emotea eta Beinke egunari jarraipena emotea, gaixotasun arraroak daukiezanen aldeko alkarteak laguntzea emoteko.

Izan be, egun horretan tabernan eta errifakaz jasotako dirua, abenduaren 29an ospatutako Beinke jaiko diruagaz batera, Gure Señeak eta Karenka alkarteentzat izango da. Gure Señeak Derioko gaixota-

sun arraroak daukiezan umeen aldeko alkarteak da eta Karenka, desgaitasun fisiko edo funtzionalen bat daukien seme-alaben gurasoak sortutako Ondarroako alkarteak.

Partiduak

Klubeko pelotari guztiak hartuko dabe parte jaialdian. Partiduak arrastiko 16:00etatik aurrera jokatuko dira Dimako frontoian.

Binakako partiduetan Dimako 29 pelotarik egingo dabe erakustaldia, tartean Amaia Alday Emakumeen Master Cupeko irabazleak. Zeanuriko hiru pelotari, Markinako bi eta Lemoa, Zornotza, Abadiño, Orozko, Zestoa eta Azpeitiko bana be izango dira erakustaldiko partiduetan.

SOKATIREA

Nazinoarteko Sokatira Txapelketea jokatuko da Zeberion

Urtilaren 13an jokatuko da, 10:00etatik aurrera, plazako frontoian. Euskal Herriko taldeez gainera, Holandako talde bat, Monikendan eta Eskoziako beste bat, Ayrshire, saiatuko dira txapela lortzean.

Erredakzioa

Lau kategoria izango dira: Gizonen 640 kilokoa; andrazkoen 520 kilokoa; mistoa 600 kilokoa eta gazteen kategoria. Hamalau tal-

dek hartuko dabe parte; Beti Gazte (Lesaka, Nafarroa); Antsoain (Nafarroa), Badaiotz (Araba), Ibarra (Gipuzkoa), Berriozar (Nafarroa); Gaztedi (Laukiz, Bizkaia), Abadiño (Bizkaia), Bizindar (Aiaraldea, Ara-



ba), Txantrea (Iruñea, Nafarroa), Goiherri (Erandio, Bizkaia), Murueta (Bizkaia), Zuraide (Lapurdi), Ñapurak (Ezpeleta, Lapurdi), Monikendan (Holanda) eta Ayrshire (Eskozia), hain zuzen be.

Arratiarrak

Arratiarrak be egongo da nazinoarteko txapelketa honetan. Holan, Ruth Linaza lemoaztarra, Badaiotz taldeko tiralaria, bertan egotekoa da. Bere ustez txapela lortzea "gatxa" izango da, baina betiko lez ahalegin guztia egingo dabe eskuratzeko. "Oindino gehiago etxean dalako" dino.

Galder Gobantes Zeberioako Gipuzkoako Ibarra taldeagaz hartuko dau parte. Antolakuntza lanetan be ibili da tiralaria, bere herrian jokatuko dan txapelketan dana ondo urten daiten.

Zeberioako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Zeberioako alkarteak, sokatira taldeak eta Bizkaiko eta Euskadiko Herri Kirolen Federazioak antolatu dabe alkarlanean Nazinoarteko Sokatira Txapelketea.

ERRUGBIA

Arratiako Zekorrak sailkapenaren behelaldean

Erredakzioa

Sei partidu jokatuko ondoren, AZ Avia Igorreko Rugby taldea seigarrena da, azkenaurrekoa, Senior 2. Maila Ako sailkapenean. Arratiakoak 9 puntu daukiez, liderra dan Sarako Izarra RT taldearen 33 puntuetatik sano urrun.

Jokatutako sei partiduetatik, 2 irabazi dabez Arratiakoak eta 4 galdu. Hurrengo partidua, sailkapenean laugarrena dan Iruña RCren

kontra jokatuko dabe urtilaren 12an arrastiko 16:00etan Igorren. Partidu hau irabazteko aukerak baditue Arratiakoak, ze talde biak



nahiko bardinduta dagoz. Iruñak be partidu bi irabazi eta beste lau galdu egin ditu eta AZ Aviak baino puntu bi gehiago baino ez ditu, 11 puntu, hain zuzen.

Gaztetxoetan, 14, 12 eta 10 urte azpiko mailatan dabil Arratiako Zekorrak Elorrio eta Gernikagaz batera. Eموitza onak atera dabez hiru mailatan eta taularen goikaldean dagoz.

Gure ikastetxeak
Euskalduna kalidazko herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

2 urtebiu 18ra

LASTO ALTXATZE

Tubik irabazi dau Euskadiko Lasto Altxatze Txapelketea

Erredakzioa

Jose Martin Bustinza "Tubi" irabazi eban abenduaren 22an Mutrikun jokaturako Euskadiko Lasto Altxatze Txapelketea. Dimakoak 23 jasoaldi egin ebazan. Jon Loiola, Diman bizi dan igorretarrak laugarren egin eban, 17 jasoaldi eginda.

Bigarren, Andoni Elizondok egin eban, Tubik baino jasoaldi bat gitxiago eginda eta hirugarren Beñat Amadek, hogeta bat jasoaldigaz. Peio Argalak eta Patxi Iturtek bosgarren eta seigarren egin eben hurrengo hurrengo.



Jose Martin Bustinza "Tubi" txapelagaz eta ondoan Jon Loiola.

MENDIA

Mendi taldeetako bazkideak mendian federatzeko sasoia da

Erredakzioa

Kirolak egiterakoan segurtasuna inportantea da eta mendizaleak be Federazio lizentziagaz batera eukiten daben aseguru garrantzia handikotzat jotzen dabe. Federazioaren aseguru istripu aseguru da eta istripua izandakoaren erreskatea be sartzean da bertan. Arratian hainbat talde dagoz eta urtea hasten danean, mendian federatzea gura daben bazkideak federatu egiten dabez. Baita federatu gura daben mendizaleak bazkide egin be.

Areatzako Lamino Kirol Klubagaz federatutako AKKBko bazkidea izan behar da eta federatu gura izan ezker, udaletxeko hirugarren pisutik pasatu behar da 19:30etik 20:30era urtailaren 7an edo 9an. Lemoako Ganzabal Mendi taldeko bazkideak barriz, online federatu daitezke www.ganzabalmto.org webgunean.

Prezioak, maila eta eremuaren arabera dira. Holan, merkeena estadian umeen lizentzia da, 16,65 eurokoa. Garestiena barriz, helduena, estadiu, Pirinio eta mundu osoan mendiko jarduerak kubriduten dauzan lizentzia da. Honek 145,96 euroko prezioa dauka.

AZKOREA

Bizkaiko txapela jantziz emon eutsan urteari amaiera Aitzol Atutxak

San Tomas egunean, abenduak 21, Bilbon Bizkaiko Aizkolari Txapelketea jokatu zan eta Aitzol Atutxak txapelketa honetako hamabigarren txapela jantzi eban, egin beharreko lana 27 minutu eta 50 segundoko denporan amaituta.

Erredakzioa

Beste arratiar bat be neurtu zan Bilbon, Atutxa eta beste lau azkolarigaz, Xabier Garcia "Utxu" Lemoakoa. Honek bosgarren egin eban 39 minutu eta 12 segundoko denporeagaz. Fabritoa Atutxa zan, 2007tik jokaturako Bizkaiko Txapelketa guztiak irabazi ditu eta.

Egin beharreko lana, lau kana erdiko, 60 ontzako bi eta beste oinbiko bi ebagitea zan. Dimakoak aldea atera eutsan Julen Larrea bigarrenari; izan be, Barakaldokoak 32 minutu eta 33 segundoko behar izan ebazan lana amaituteko.

Hodei Ezpeleta izan zan hirugarrena, Beñat Lekue laugarrena, Xabier Garcia "Utxu" Lemoakoa bosgarrena eta Aritz Irabazal izan zan seigarrena.

Desafio proposamena

Iker Vicente Euskal Herriko azkolarari txapeldunordeak desafioa egin deutso bost aldiz segiduan Euskal Herriko txapelduna izan dan Atutxari. 2019ko urtailaren 5ean jakingo da Atutxaren erantzuna zein dan. Zitea 18:00etan dauka Tolosako Kantabriko tabernan.

Irati Astondoa bigarren

San Tomas egunean be Donostiako Trinitate plazan, jokatu zan Emakumeen Aizkora Kopa. Zea-nuriko Irati Astondoa saiatu zan

kopea arratiara ekarten baina ezin izan eban. Nerea Sorondo izan zan azkarrena 36 ontzako 5 enbor ebagiten. Horretarako 11 minutu eta 34 segundo behar izan ebazan. Irati Astondoak 13

minutu eta 39 segundotan egin eban lana. Ondoren Maika Ariztegi, Itsaso Onsalok eta Xanta Sousak hirugarren, laugarren eta bosgarren egin eben hurrengo hurrengo.



Aitzol Atutxa.



Xabier Garcia "Utxu".

FUTBOLA

Arratia sendo lidertzan

Erredakzioa

Arratiako andrazkoen A taldea lidertzan da lehen itzulia amaitu eta gero. 38 puntu ditu Igorreko taldeak eta 4 puntu ateraten deusaz bigarrenari. Arratiak 2 Mariñok 0 izan zan abenduaren 23an jokaturako atzen partiduko emoitza. Datorren partidua Urbietan jokaturako dau Arratiak urtailaren 6an goizeko 11:00etan Elorrio taldearen kontra.

Andrazkoen B taldea oster

bosgarren da sailkapenean 11 jardunaldiren ostean. Datorren partidua urtailaren 5ean 20:00etan jokaturako dabe Basauriko Kimuak taldearen kontra Urbietan.

Gizonezkoak

Arratiako gizonezkoen A taldeak hutsna bardindu eban Sondikaren kontra abenduaren 22an etxetik kanpo jokaturako atzen partiduan. 14 jardunaldi eta gero Arratia 12. dago sailkapenean 15 puntugaz. Datorren partidua Arra-

tia Elorrio izango da hilaren 5ean arrastiko 17:50ean Igorren.

Gizonezkoen B taldea oster 14 jardunaldi eta gero bosgarren dago sailkapenean 28 puntugaz. Datorren partidua Arratia B Iraultza izango da urtailaren 5-6ko astegienean.

LemoaHarrobi

Lemoako taldeak 1-2 irabazi eban Lezama Sport taldearen kontra abenduaren 23an Lezaman jokaturako atzen partiduan. 14 jardunaldi eta gero LemoaHarrobi laugarren dago sailkapenean 25 puntugaz. Datorren partidua Basconia Bren kontra jokaturako dau hilaren 5ean 16:30ean etxean.

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249



Ugatxa
Ugarana kalea, 6
48141 Dima
T. 946 129 460

KONTZERTUA

**Gospel kontzertua
Areatzako eleizan****Erredakzinoa**

Urtailaren 3an, 20:00etan, Areatzako San Bartolome eleizan, Ramon Escalaren zuzendaritzapean eta Charles Cooper saxofoi-joleak lagunduta, Arteta Gospel Choir abesbatzak kontzertua eskainiko dau.

Arteta Gospel College, Barakaldoko Arteta Musika eskolako gospel eskolea da. 2017ko martian sortu zan. Proiektua Ramon Escale musikari katalanak zuzentzen dau.

Arteta Gospel Collegen hiru gospel abesbatz dagoz, edadearen arabekoak, bata umeak osotuten dabe, beste bat gazteak eta hirugarrena helduak.

Ramon Escale

Ramon Escale, pianojole, musikagile, musika zuzendari eta pedagogo da eta 20 urte baino gehiago daroaz Gospel musikea landuten. Arteta Gospel Collegen emoten ditu eskolak, hilean bitan Bartzelonatik etorrira.

IKASTAROAK

**Urtailetik
martirako udal
ikastaroetan
izena emoteko
epea zabalik****Erredakzinoa**

Dimako Udalak antolatuten dituan ikastaroak hiru hilabetekoak izaten dira. Urtailetik martirarteko ikastaroetan izena emoteko epea abenduaren 26an zabaldu zan eta urtailaren 7ra arte egongo da zabalik. *Yoga, Eskulanak, Pilates, Entrenamentu funtzionala, Gimnasia hipopresiboa* eta *Zunba* dira ikasturte honetako bigarren hiru hilabeteko eskaintzen diran ikastaroak.

Taldeak aurrera eroateko gixixenez 8 lagunek emon beharko dabe izena; dagozan lekuak baino gehiagok emoten badabe izena barriz, zozketea egingo da eskatzaileen artean. Diman errolatuak lehentasuna daukie. Prezioak 60 eta 75 euro artean dira Diman errolatuentzat eta 85 eta 105 artekoak Diman errolatuta ez dagozantzat.

KULTUREA

**Igorreko Lasarte Aretoko bazkide
izateko kanpaina abiatu dau****Erredakzinoa**

"Gabonetan kultura oparitu!!" lelopean Lasarte Aretoko bazkide txartela 5 euro merkeago egin edo barriztu daiteke urtailaren 7ra arte. Horretarako, Kultur Etxeko harrerara jo behar da, 10:00etatik 20:30erako ordutegian. Lasarte Aretoko Gabonetako kanpaina berezi hau martxan ipinten dauan bosgarren urtea da.

Txartelagaz urteko ikuskizun guztietan %25eko deskontua izaten da, eta zuzeneko ikuskizun bat eta lau pelikula debalde dira. Ikastaroak be %15eko deskontua daukie txartela erakutsita. Gainera, Euskal Antzoki Sareako antzoki guztietan, deskontuak egingen ditue Lasarte Aretoko bazkide txartelagaz. Txartela egiteko edo informazioa jasoteko Igorreko Kultur Etxera hurbildu behar da.



**GABONETAN
KULTUREA
OPARITU!!**

**ANTXON
URRUTIA
EUA**

~~30€~~ → 25€

- Ikuskizun guztietan %25eko deskontua
- Urtean Zuzeneko ikuskizun bat doan
- Urtean 4 film doan
- EUSKAL ANTZOKIEN SAREAKo antzoki guztietan deskontuak

Lasarte Aretoko lagun txartela V Gabonetako kanpaina berezia
Abenduaren 17tik urtailaren 7ra arte



BEGITU

Aldaketak BEGITUN urteagaz batera

Erredakzinoa

Urte barriagaz gauza asko barriztu egiten dira eta BEGITUk be aldaketak batzuk eukiko ditu, irakurleen preminetara hobeto egokitzeko.

Arratia, Ubide eta Zeberion gero eta jardura kultural gehiago antolatzen dira eta aspaldi geratu jakun motz agendeari egokitutako lekua. Horregaitik, leku gehiago emongo deusagu, orrialde osoa.

Horretarako, denpora-pasak, hau da, kurutzegamea eta letrazopea kendu behar izan doguz. Iman Olatu, Imanol Atutxa kolaboratzailearen sormen handiko lana izan da, ia hamar urtean, 2009ko maiatzetik, kale egin barik, hama-bostero euki doguna BEGITUN.

Komikiak be egiten ditu Iman Olatuk BEGITURAKO. Sail honetan bere kolaborazinoa eukiten jarraituko dogu.

Imanol Atutxa

Imanol Olatu ezizenagaz sinatuten dauan Imanol Atutxa zeanuriztarak, denpora-pasak eta komikiak BEGITURAKO egiteaz gainera, beste medio batzuetarako be egin izan ditu. Sei bat urtez Deia egunkariko eguneroko kurutzegamea egin izan dau eta Diario de Alavan be agertu dira berak sortutako kurutzegramak. 2013an komiki liburu bat argitaratu eban *Historias de Patxi Poteo* titulupean, eta beste komiki liburu baterako besteko materiala badaukala azaldu deutso BEGITURI.



Imanol Atutxa.

KONTZERTUA

Areatzako Bandak Laboari omenalditxo egingo deutso Igorreko kontzertuan

Erredakzinoa

Areatzako Banda, urte amaierako kontzertua Areatzan jo ostean, Igorreko Lasarte Aretan izango da urtailaren 3an, 19:30ean. Hor Gabon sasoiko piezak joteaz gainera, Mikel Laboaren heriotzearen 10 urte bete diranean, omenalditxo egingo deutso Laboaren kantarik ezagunenak joz.

Paula Perez Buenoren zuzendaritzapean, Alfres Reed-en *Funiculi funicula*, Frank Bernaerts-en *Tom Jones in concert*, Jacob de Haan-en *Concerto d'amore* eta Tchaikovskyren *Marcha Eslava* piezak joko ditue beste batzuen



artean. Gabon sasoia izanda, "ez da Gabon kantarik faltauko ezta ohitura bihurtu dan *Radetzky martxea* be" dinoe Bandakoak.

ZINEKLUBA

Get Out bildurrezko pelikulea Igorreko Zineklubean

Erredakzinoa


Urtailaren 10ean, 20:00etan, Igorreko Zineklubak Jordan Peele zuzendariaren *Get Out* filma estadubatuarra ekarriko dau Lasarte Aretora. Pelikuleak sano kritika onak jaso ditu, eta publikoak zine aretoak bete egin ditu herri guztietan. Oscar eta Bafta Gidoi Original Onenari sariak jaso ebazan filmak 2017an.

Sinopsia

Chris eta bere neska-lagun Rosentzat aita-amaginarrebak ezetuteko

momentua heldu danez, Roseren gurasoak ezetuteko astegoien pasa antolatu dabe. Hasikeran, Chris bildur da, gurasoai txarto irudituko ete

jakien, euren erraza arteko hartu-emonen. Baina gertaera arraroak jazoten hasten dira eta laster konturatuko da hori bere arazorik txikiena dala.



DUNBA

Plastikoak lurra hartu dabe!

Igorreko Inazio Zubizarreta ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Plastikoaren ekoizpena eta erabilera egunegun handituz doa. Gaur egun erabilten doguzan material gehienak plastikoz eginda dagoz, etxeetan, industrian, edozein lekutan, plastikoak nagusi da. Planetako txoko guztiak, batez be itsasoak, ibaiak, uharteak... mehatxatzen dabe, honeek diralako eurentzat azken helmuga. Bertan bizi diran espezie askoren biziraupena kaltetuz eta hondamen errekuperatu ezinaz sortuz. Plastikoak hondartzetan, uretan flotetan, eremu sakonetan, arroketan, mendietan, edozein bazterretan topau daikeguz. Urtero, itsasoak eta

ozeanoak, Artikotik Antartikoraino 12 miloe tona hondakin jasoten dabez.

Plastikoaren erabilera ez da jasangarria, nahiz eta guri, modu baten "erraztu" deuskun bizitza.

Gure ohiturea erabiltea eta botatea da, baina kontrol bako erabilera honek, naturan eta guban eragin negatiboa izan dau. Honegaitik arazoaren iturburura joan behar gara, gixitu eta berrerabiliren kontzientzia hartu behar dogu. Zortzi miloe tona isurtzen dira itsasora urtero. Plastikoaren heren bat bakarrik Europako 28 estaduetan gaika batuten da. Datuak ez dira hobeak Euskal Herrian, horregaitik, gaur egun indarrean dagoan mobimentua da: plastikorik bako bizimodua egitea.



Hona hemen datu batzuk:

8.300 miloe tona metriko sortu doguz, eta holan jarraitu ezker 2050. urtean 13.000 miloe tona egongo da ingurumenera jaurtinda.

Bertsoa:

Denda guztietan dau gure betikoa boltsa zikinak dira gure gerrikoa arraina badaukagu zakarrez itoa murriztu behar dugu beti plastikoa.

AGENDEA

URTAILAK 2

BEDIA
17:00etan, *Richard zikoina* filma ludotekan.
IGORRE
Urtailaren 18ra arte, Juan Sagastizabalen erakusketea *Bertako natura arrotza*. Kultur Etxeko Erakusketa Gelan.

DIMA
Udal ikastaroetan izena emon daiteke hilaren 7ra arte, udaletxean. Ikastaroak: *Yoga, Eskulanak, Pilates, Entrenamendu funtzionala, Gimnasia hipopresiboa* eta *Zunba* dira.

LEMOA
19:00etan, harrera esperientzien trukaketea. Artea, Usansolo, Arrigorriaga, Zierbena eta Harribide Fundazioetik joango dira esperientziak kontetan. Karabie Gazte txean.



ZEANURI

19:00etan, esku pelotearen gaineko mahai-ingurua Kultur Etxean. Abel Barriola, Karmelo Ariznabarreta, Oier Etxebarria, Iñaki Gorostiza, Danel Elezkano eta Joserra Garai. Moderatzailea: Pedro Mari Goikoetxea.



URTAILAK 3
AREATZA

20:00etan, Ramon Escalek zuzendutako Arteta Gospel Choir taldearen gospel kontzertua eleizan.



BEDIA
10:00etatik 19:00etara, urtekerea GUPera. Bazkaria eta merienda eroan behar dira.

IGORRE
11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea. Motxoganen tailerrak aterpean.
19:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua Lasarte Aretoan.



LEMOA
11:00etatik 13:30era, ludotekea zabalik.
20:00etan, Pintxo Lehiaketea Gazte txean.
UBIDE
Hilaren 16ra arte, pastuak ordaintzeko epea udaletxean.

URTAILAK 4
LEMOA

11:00etatik 13:30era, ludotekea zabalik.
20:00etan, *Koktail* tailerra Gazte txean.

URTAILAK 5
AREATZA

18:00etan, Erregetako kabalgatea. Karpon hasita eguraldi ona egin ezker, ostean

plazan.
BEDIA
18:30ean, Erregetako kabalgatea. Aurretik txokolatea bananduko da.



DIMA
16:00etan, Pelotan be ein geinke, Beinke! pelota erakustaldia. 10 partidu frontoian.
IGORRE
18:30ean, Erregetako kabalgatea Mandoia kaletik hasita.
LEMOA
23:00etatik aurrera, Stankeik. Kontzertua Gazte txean.



URTAILAK 6
LEMOA
10:00etan, urtekerea bizikletan.



Glu Gluk antzerkirako moldatutako Pinotxo taularatuko dau Igorren

Urtailaren 4an, Glu Glu Produzioak-ek, Carlo Collodiren *Pinotxo* ipuinaren moldaketea antzetzuko dau Lasarte Aretoan. Saio bi egongo dira; bata, 16:30ean eta bestea 18:30ean.
Familia osoarentzako ikuskizuna da eta musika eta jantzea ditu ardatz. *Pinotxo* ipuin klasikoak ez dau gaurkotasuna galdu eta komedia musikala bihurtuta, gaurko umeai modu dibertigarrian, sortu zan sasoiko ikasgai bera heldu arazoko deutse.
Antzezlanaren egilea Galder Perez da eta Maite Zalduegiren zuzendaritzapean, Jon Casamayor edo Iñaki Maruri, Itxaso Quintana, Andrea Covadonga eta Ugaitz Alegria edo Iñaki Maruri aktoreak antzetzuko dabe ipuina Lasarte Aretoan.

Arlonagusiako kantxatik. Lemoa Txirindulari Elkartek antolatuta.
Errege magoak. Lemoako Parrokia.

URTAILAK 7
AREATZA

19:30etik 20:30era, AKKBko bazkideak mendian federatzeko aukera udaletxeko 3. solairuan.



BEDIA
Hilaren 11ra arte, urtailaren 25, 26 eta 27an Baqueirara eskietan joateko izena emoteko epea; hilaren 18ra arte, zezeilaren 2an Alto Campoora eskietan joateko izena emoteko epea Liburutegian.



LEMOA
16:45etik 18:15era, Familia-lagunen izen-emotea, hilaren 11ra arte.

URTAILAK 9
AREATZA

19:30etik 20:30era, AKKBko bazkideak mendian federatzeko aukera udaletxeko 3. solairuan.

URTAILAK 10
IGORRE

20:00etan, Zinekluba *Get Out* filma Lasarte Aretoan.



URTAILAK 12

IGORRE
22:00etan, zinea *El reino* Lasarte Aretoan.




URTAILAK 13

IGORRE
17:00etan, zinea *El regreso de Mary Poppins*; 19:30ean, *El reino* Lasarte Aretoan.
LEMOA
10:00etan, urtekerea bizikletan. Arlonagusiako kantxatik. Lemoa Txirindulari Elkartek antolatuta.
ZEBERIO
10:00etan, Nazinoarteko Sokatira Txapelketea Plazako frontoian.



URTAILAK 16
LEMOA

19:00etan, Lemoako Jaietako Garsu Elkartean, jai batzordea, urteko lehenengo batzarra udaletxean.



AKIKMIKO

K
a
i
l
o
R
e
n



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baserri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol tonon balezago hobea. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

ETXE BILA

Arratiatik baserri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zebakira deitu.

ALOKAIRURAKO LAGUN BILA

Dimako Egiraun auzoan leku eder baten baserri dotore eta polit baten alokairua konpartiduteko pertsonen bila gabiz. 450 euro. Ortua, tenis zelaia eta bainua hartzeako aukerea. Interesdunak 607 482 499 telefonora deitu.

ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabizlan familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

ZAINTZA LANA

Laguntzailea behar dogu edadeko andra bateri etxeko lanak eta konpainia egiteko. Interesdunok deitu 657 777 542 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Glu Glu Produkzioak-en Pinotxo antzezlanerako.

Aiala Landajo (Igorre)
Jon Intxaurbe (Zeanuri)



Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera El reino filmarako.

Leonardo Zuloaga (Areatza)
Marina Urigoitia (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
e-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semmedu@hotmail.com

begitu
areala utzita sartuta

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 • 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-49-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Tel: 94 631 52 83
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejateetxea@hotmail.com

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizarra egin eta bukunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



Areatzako Bainuetxea



www.hotelbalnearioareatza.com

Oparia topetan Gabonetarako?

Urte honetan, relax-a Areatzan

Masajeak, zirkuitu termalak,
bonu gastronomikoak, hidromasaje bikotxak,
estalkiak, estetikea, fisioterapia...

28€-tik aurrera

info@hotelbalnearioareatza.com - 946572705